

Zurrumurru matxisten gida

USTE USTELAK



emagin

Zurrumurru matxisten gida

USTE USTELAK



2 Aurkibidea

- AURKEZPENA 03
INDARKERIA MATXISTA 04
MITOAK 06
ZURRUMURRUAK 16
HAUSNARKETARAKO ARIKETAK 24
BIBLIOGRAFIA 31



zergatik gida hau?

Azken hamarkadetan eta, bereziki, azken urteetan, mugimendu feministatik egindako lanari esker, bilakaera handia izan du indarkeria matxistari buruzko kontzientziazioak. Arazo pribatua izatetik, arazo sozial eta publikoa izate-ra igaro da; era berean, erakunde publikoek (gehago edo gutxiago) legeak, neurriak eta programak jarrí dituzte martxan. Eragile sozial, elkarte eta kolektibo askoren kezka eta implikazioa geroz eta handiagoa da, eta jendartea, orokorrean, kontzientziatuago dago. Horren adibide dira azkeneko urteetan eraso sexisten aurrean izan diren erantzun sozialak eta egindako elkarretaratze jende-tsuak.

Dirudienez, geroz eta jende gehi-gok gaitzesten du emakumeak erailtzea, jipoitzea, bortxatzea edo gaizki tratatzea. Bainan, orduan, zergatik irauten du indarkeria matxistak?

Zergatik jarraitzen dute neskek errudun sentitzen eraso bat jasan ondoren? Zergatik jartzendugu, orain-dik, zalantzan gertatukoa? Zergatik diogu bortxaketa dela ezezagun batek neska bati sexu harremanak izatera behartzen duenean, baina sekula ez hori bikote harremanen barruan geratzen denean?

Publikoki berdintasunaren aldeko diskurtsoa gailendu da, eta indarkeria matxista arbuiatzeko ekimenak, agerraldiak eta jardunaldiak ikus daitezke nonahi. Hala ere, ez dira hainbeste aldatu sexuen arteko harremanei buruz gizartean errotuak ditugun sinesmenak eta jarrerak. Horren isla dira zurrumurru matxistak deritzanak: herritarrok, pentsamendu eta senti-penetatik abiatuta, ahotan darabiltzagun uste uste-lak; indarkeria matxistaren erroan sustraituta dauden iritziak izaki gerora, indarkeria matxista baimendu eta justifikatzeko baliatzen dira.

Ez dugu alamarrik piztu nahi; baina, garrantzitsua da indarkeria matxista identifikatu eta horri aurre egiten lagunduko diguten bitartekoak eta tresnak sor-


tza. Ezin diogu muzin egin oinarrizko giza eskubideen kontrako errealitate horri. Era berean, adi ibili behar dugu beldurra sustatu dezaketen diskurtsoekin; izan ere, gure xedea da beldurraren aurrean emakumeak indartu eta indarkeria matxistari erantzuteko baliabi-deak, gaitasuna eta ahal-mena izatea.

Esku artean duzun gida hau indarkeria matxistari aurre egiteko tresna da, Auto-defentsa Feministako, banakako nahiz taldekako, ahalduntzerako bitartekoak, hain zuzen. Azken batean, eraldaketarako baliabide bat.

Gida honek, mito eta zurrumurru matxistak zer diren azaldu nahi du, nola adierazten diren eta zein jatorri duten. Horrez gain, horiei aurre egiteko erantzun eta estrategiak bildu nahi ditu. Kontzientziak astindu nahi ditugu eta, horrez gain, maitasunaren, elkartasunaren eta gozamenaren inguru diskurtso ireki eta ugariak sortu. Has dadila, beraz, hausnarketa!

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Indarkeria matxistaren erroan mundu ikuskera binariotik eratorritako sexu-genero sistema bitarra dago. Izan ere, gure jendartean bi sexu aukera ezartzen dira: emakumea edo gizona. Ikuspegi hori mailaketa hierarkiko bati atxikita dago: gizonak emakumeen gain eta emakumeak gizonen menpeko kokatzen dituen botere harremana du oinarri. Patriarkatuak bigarren mailako herritar izendatu ditu emakumeak, baita bereizkeria egoera hori mantentzeko egiturak sortu ere. Zapalkuntza mantentzeko, ordea, indarkeria baliatu behar du. Horregatik da, hain justu, indarkeria matxista dominazio patriarkala iraunazteko tresna behinena.



Hiru indarkeria mota nagusi bereizten ditugu: sinbolikoa, zuzenekoa eta egiturazkoa. Batez, sinbolikoa sexu-genero sistema betikotzen duen indarkeria da: erreferenteen, kulturaren, publizitatearen eta sinesmenen bidez transmititzen diren sexuen arteko botere harremanek eta bereizkeriek osatzen dute. Kantu, iragarki, sinesmen sistema edo tradizio kulturaletan atzeman dezakegu. Indarkeria sinbolikoaren helburua da, finan, menpekoa eta azpiratzalea, bakoitza nor bere lekuan iraunaztea.


Bigarrenik, zuzeneko indarkeria dugu: kasu honetan, erasotzai-leak azpiratuari eragindakoa da. Erasoa fisikoa, ahozko edo psikologikoa izan daiteke: kolpea, iraina, mehatxua, kontrola, begirada edo isilunea, besteak beste.

Adibide desberdinak zerrendatu ditzakegu. Izan daiteke bor-txaketa kasu bat; edo festetan, mutil talde batek neska taldea iraintzea, beren sexualitatearen edo gorputzaren inguruan, bikotekideak edo bikotekide ohiak emandako jipoia; trabesti bati egindako irainak, bere generoa nahi duen eran jendarte-ratzeagatik...

Egiturazkoa da, hirugarrenik jendarte egitura eta antolaketa-dagokiona: sistema ekonomikoa, zaintza lanen banaketa, lan produktibo eta erreproduktiboen banaketa horretan datza. Emakume eta gizonen gizarteko posizio sozialak mugi ez dai-tezen sortutako hainbat egiturek osatzen dute, maila politikoan dauden erabaki-guneek, adibidez. Egitura horiek eraldatu nahi direnean indarkeria egoerak gertatzen dira. Emakumeek pairatzen dituzten diskriminazio egoera guziak izan daitezke horren adibide: soldata arrakala, lanpostuen feminizazioa, zaintza lanen naturalizazioa, boteregu-neetan ordezkaritza eskasa...

Agerian geratzen da, beraz, genero sistema ez dela soilik kaltegarria bi sexu eta bi genero identitate herti proposatzen dituelako, bi aldaera horien artean desberdinka sustatzen duelako baizik. Gizona emakumeari gailentzen zaio, maskulinoa dena femeninoa baino gehiago baloratzen da. Gaur egungo jendartean balioesten diren elementuak dira, adibidez, ibilbide profesionala izatea, autonomoa eta eskuduna izatea, esparru publikoetan aritzea, eta abar. Aldiz, zaintza-lanak, etxeko lanak edo ezaugarri afektiboak, besteak beste, ez dira kontuan hartzen.





ZER DIRA MITOAK?

Oro har, mitoak kontakizun tradizionalak dira eta izarea sinbolikoa dute. Mundu ikuskerekkin harreman zuzena dute, nahiz eta ez duten testigantza edo oinarri historiko

sendorik. Ezin dira guztiz frogatu, ontzat eta egiaztat hartu ohi diren arren. Zibilizazio askotan, gertakari konplexuak azaltzeko erabili dira eta balioak, sinesmenak eta kontzeptuak be-

launaldiz belaunaldi igaroarazten dituzte. Mitoak egiaztatu ezin diren gertakariak dira eta oinarrian helburu ideologiko sakonak dituzte. Horiek ahoz aho transmititu eta hedatu izan ohi dira.



Indarkeria matxistaren gaineko mitoak, askotan, ezin dira egiaztatu. Oro har, faltsuak dira eta sinesmen estereotipatuak jasotzen dituzte, baina, egia balira bezala formulatzen ditugu eta modu absolutu zein aldaezinean adierazten dira. Karga emozional handia dute, sentipen

asko metatzen dituzte, eta, ondorioz, taldearen ideología mantentzen eta birsortzen dute. Maiz, arrazoiketa edo argudio falta dago horien atzean.

Mitoen helburua balio patriarkalak eta gizon eta emakumeen arteko botere harremanak iraunaztea da. Ho-

rien bitartez, indarkeria sexista justifikatu, ukatu eta emakumeen kontrako erasoak gutxiesten dira (Peters, 2008). Horietako asko gaurdaino iritsi zaizkigu eta, ezabatzeko ahalegina egin ordez, oinarri berdinenean gaineran berriak sortu ditugu. Azken horiei neomito deituko diegu.

Hainbat autorek egindako sailkapenak
kontuan hartuta, honako mito hauek
atzeman ditugu:



01

INDARKERIARI GA- RRANTZIA KENTZEN DIOTEN MITOAK

Indarkeria matxis-
ta salbuespeneko
zerbait bezala
irudikatu eta ezhoi-
ko testuinguruek
eragindakoak direla
esaten dute. Indar-
keria sexista egitu-
razkoa dela ukatzen
dute, baita arazo
sozial unibertsala
dela ere (Bosch
eta Ferrer, 2002).



02

ERASOTZAILEEN INGURUKO MITOAK

Aldagai pertsonale-
tan jartzen dute arreta
eta erasotzaileei errua
kentzea dute helburu.
Erasotzaile eredu zehat-
za sustatzen dute (Bosch
eta Ferrer, 2002; Peters,
2008). Askotan, deabru
irudiekin lotzen dira
erasotzaileak, munstroen
pareko. Horrek zaildu
egiten du erasotzaileak
identifikatzea, eta erre-
litatetik urrun dauden
gizon ereduak sustatzen
ditu.



03

INDARKERIA MATXISTA PAIRATUTAKO EMAKU- MEEN INGURUKO MITOAK

Errua gizonengandik emakumeengana lekualdatu eta emakumeak gertatzen zaien ororen erantzule egiten ditu. Hala, horien arabera, emakumeen ezagarri entzutetsuenetako bat da bortizkeria erakartzea dutela, nortasunarekin, estatusarekin edota alor emozionalarekin lotuta, bestiere. Emakumeek indarkeria onartu edo eskatzen dutela argudiatzen dute mito horiek (Bosch eta Ferrer, 2002; Peters, 2008). Era berean, maiz, arau sozialak betetzen ez dituzten emakumeak dituzte jopuntuan, eta, beste hainbatetan, arauak ez betetzeagatik zigorra merezi dutela argudiatzen dute.

04

UKAPEN MITOAK ETA NEOMITOAK

Mito tradizionalen segida eta garapena dira, alegia, iraganeko haria jarraituta sortzen diren mito berriak (Lorente 2009). Guztien onerako eta defentsarako omen diren diskurtso neutralak baliatuta, itxuraz, jarrera tradizionalekin hausten dute, baina, egiazki, mito zaharren bertsio konplexuagoak besterik ez dira eta jarrera patriarkal tradizionalak mantentzea dute xede.

Hona hemen adibide batzuk: gurasoen alienazio sindromea, legeek kriminalizatzen duten ustea, genero indarkeria gizon-emakumeen arteko harreman arrunta dela pentsatzea, salaketa faltsuak hazi direla esatea edo gizonak sistemaren benetako biktima gisa aurkeztea.

Esan bezala, mito matxistak jendarteko beldurrrak gutxitzeko erabiltzen dira. Arazoa “besteena” dela iradoki, indarkeria ezkutatu, biktimekiko babesu murritzua eta erasotzaileen ardura mugatzen dute. Horrez gain, erasotzaileen portaera zuritzeko aringarriak bilatzen dituzte. Mito zaharrek berriak sortzen dituzte eta elkar elikatzen dute. Horien guztien funtzioa sistema patriarkala eta indarkeria matxistaren egiturazko izaera ukatzea da. Hori horrela, gertaerak kasu bakartu gisa tratzen dituzte, bikote heterosexuallen arteko gai pribatuak balira bezala. Gizonen pribilegioak mantentzeko sortzen dira, eta horiek sistemaren zein legeen biktimak direla argudiatzen dute. Gainera, emakumeak errudun bilakatzen dituzte eta emakume gaizkile eta maltzurraren irudia indartzen dute.

Ezinbestekoa da mito matxistei aurre egitea eta identifikatzeko eta desmuntatzeko datu zein argudioak hedatzea. Eskuliburu honetan, bide horretan lagungari izan daitezkeen ideia batzuk bildu ditugu.

MARJINALITATEAREN INGURUKO MITOAK

- Indarkeria matxista herrialde azpigaratuetan soilik gertatzen da.
- Indarkeria matxista arazoak dituzten (baliabide ekonomiko gutxi, langabezia...) familia edo pertsonetan gertatzen da.

1. Indarkeria matxista unibertsalada, mundu osoko herrialdeetan gertatzen da, eta ez du zuzeneko loturak egoera ekonomikoarekin, garapen mailarekin, egoera geografikoarekin, erregimen politikoarekin eta abarrekin. (Carlshamre, 2005; Heise eta García-Moreno, 2003; Keltosova, 2002; Sanmartín, 2006; Sanmartín, Molina eta García, 2003; Sanmartín, Iborra, García eta Martínez, 2010).

2. Nazio Batuen Erakundeak munduko 71 herrialdetan egindako ikerketa batek azaltzen du bikote harremanetan indarkeria sexista gailentzen dela.

3. Azken hamarkadako estatistiken arabera, erasoen % 85 baino gehiago bikotekideek, bikotekide ohiek, maitaleek eta harreman sexu-afektiboak dituzten gizonek egiten dituzte.

1. Indarkeria matxista maila sozial, etniko, kultural, adin tarte, diru sarrera maila, ikasketa edo lanbide... guztiako pertsonetan gertatzen da. (Carlshamre, 2005; Keltosova, 2002; Heise eta García-Moreno, 2003). Indarkeria sexista jasandako emakumeek nahiz erasotzaileek ez dute profil zehatz bat.

2. Emakumeen % 85ek baino gehiagok jasaten dute indarkeria mutil-lagunen eskutik; herri aberats nahiz txiroetan gertatzen den zerbaitek da.

- MITOAREN DESKRIBAPENA
- ESKUARTEAN DITUGUN DATUAK / EBIDENTZIAK

*Taula Emagin Elkarteak sortu du, Nuevo mapa de los mitos sobre la violencia de género en el siglo XXI lana oinarri hartuta.



ERASOTZAILEEN INGURUKO MITOAK

- **Indarkeria sexista gutxi batzuen jarrera da eta gizonezko gehienek gaitezten dute.**

1. Indarkeria kasuak bakanak, patologikoak eta salbuespenekoak direla argudiatzen da, eta izaera kolektibo eta politikoa estaltzen da. Indarkeria egiturazkoa dela ukatzen da.

- **Belaunaldien arteko indarkeria matxistaren transmisiokoaren hipotesia. Bikotekidea (edo bikotekide ohiari) erasoatzen duten gizonezkoak aitarengandik erasoak jasandakoak dira (edo eraso matxisten lekuko izan dira beren jatorrizko familiar).**

1. Haurtzaroan indarkeria matxistaren lekuko izandako erasotzaileak %10 eta 40 artean dira. Herrialdearen arabera, %10etik %80ra bitartekoan kokatzen da. (Sanmartín et al., 2003, 2010).

2. Indarkeria matxista ikusi edo jasan duten haurrek ez dute zertan erasotzaile bilakatu helduaroan. Erasoak ez ditu kausa bakar batek eragiten; askotariko faktoreak gurutzatzen dira, eta, horregatik, ezin da kausazko erlazioirik ezarri biziako eta gaur egungo indarkeriaren artean. Askotariko faktore horien artean leudeke, bereziki, gaur egungo sistema patriarkalak sustatzen duen gizarte egitura hierarkikoa, ikuspegi eta antolaketa bitarra edo genero eta hezkuntza sistema.

- **Erasotzaileek buru osasuneko arazoak dituzte edota alkohola zein bestelako drogak gehiegikeriaz kontsumitzen dituzte.**

1. Gizarte, erasotzaileen iruditegi zehatz bat sustatzen da, arazoa gutxiesteko. Arazoa, ordea, ez da banakakoa; soziala da, eta jendarte guztiari eragiten dio. Indarkeriaren atzean, mutil edo neska gisa sozializtzeak, jasotako hezkuntzak eta heziketak eragin zuzena du.

- **Bikotekidea (edo bikotekide ohiari) erasotzen duten gizonezkoek alkohola edota drogak kontsumitzenten dituzte.**

1. Mundu mailan, alkoholaren eta drogen neurrigabeko kontsumoa emakumeen aurkako indarkeria matxista kasuen %50ean topa dezakegu. (Sanmartín et al., 2003, 2010).

2. Indarkeriari eta osasunari buruzko mundu mailako txostenak (Heise eta García-Moreno, 2003) adierazten duenez, "eztabaida handia dago indarkeriaren eta alkoholaren kontsumoaren arteko erlazioaren inguruari, eta ez dago argi benetan kausala den. Ikertzaile askok pentsatzen dute alkoholak faktore koiultural modura jardutzen duela, inhibizioak gutxitzen baititu, adimenak lainotu eta norbanakoak zantzuak interpretatzeko duen ahalmena ahuldu, eta, hala, indarkeria gertatzeko aukerak handitzen direla". (107 or)

- **Genero indarkeria jeloskortasuna-gatik gertatzen da.**

1. Jelosia ez da indarkeriaren zergatia. Bikotekidea kontrolatzeko erasotzaileek erabilten duten estrategietako bat da, eta emakumea kontrolatzeko edo bakartzeko helburua duten ekintzak indarkeria psikologikoa dira (NBE, 2006).

INDARKERIA MATXISTA JASANDAKO EMAKUMEEN INGURUKO MITOAK

- **Ezaugarri jakin batzuk dituzten emakumeek eraso sexistak jasateko aukera gehiago dituzte.**
 1. Indarkeria matxista jasandako emakumeek ez dute profil jakin bat; adin guztieta emakumeak izan daitezke, haien hezkuntza, diru sarrerak edo maila soziala edozein direla ere (Carlshamre, 2005).
 2. Adibidez, Spainian egindako ikerketa batek (Vázquez et al., 2010) erakutsi zuen indarkeria matxista (eta, bereziki, psikologikoak) unibertsitatean zeuden emakume gazteen % 6,3k jasaten zutela, eta zenbateko hori beste ikerketa baitzuetan jasotakoa baino txikiagoa da.
- **Genero indarkeria pairatzen duten emakumeek harreman hori eteten ez badute zerbaitegatik izango da; agian gustatu egiten zaie: masokismoaren mitoa edo norberaren kontra jotzeko izaera.**
 1. Azken hori nahasmendu mentalen diagnostikorako eta estatistikarako gidaliburueta sartzen saiatu ziren, III eta III-R edizioetan, baina ez zuten arrakastrik izan (San Martín eta González, 2011)
 2. Bikotekidearen edo bikotekide ohien eskuistik indarkeria pairatzen duten emakumeek ondorio fisiko, mental eta sozial garrantzitsuak dituzte. (García-Moreno, 2005; Heise eta García-Moreno, 2003; ONU, 2006; Sanmartín et al., 2010).
 3. Bere bikotekidearengandik indarkeria matxista jasan dituen emakume batek harremana uzteko zaitasunak azaltzeko zenbait eredu teoriko osatu dira, hala nola, indarkeriaren zikloaren teoria (Walker, 1984), etxe barneko idarkeriarako

egokitzapen paradoxikoaren sindromea (Montero, 2001) eta labirinto patriarkalaren eredua (Bosch, Ferrer eta Alzamora, 2006).

- **Emakumeek genero indarkeria pairatzen badute, zer edo zer egingo zuten hora eragiteko.**

1. Emakumearen aurkako indarkeria ezabazeari buruzko hitzarmenak (Batzar Orokorraren 48/104 Ebazpena, NBE, 1984) giza eskubideen testiguruan kokatu zuen emakumeen aurkako indarkeria, adieraziz emakumeek eskubidea dutela oinarritzko eskubide eta askatasunak erabiltzeko, eskubide eta askatasun horiek babestu behar direla eta emakumeen kontrako indarkeria mota orok giza eskubideak urratzen dituela (Heyzer, 2000).

2. Beijingeko adierazpena eta ekintzarako plataformak (NBE, 1995) azpimarratu zuen emakumearen aurkako indarkeriak, emakumeen giza eskubideak urratzeaz gainera, emakumeek giza eskubideak osoki erabili ahal izatea eragozten duela.



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAK DUEÑA GARRANTZIA GUTXIENTE DUTEN MITOAK

● Genero indarkeria fenomeno puntual bat da, oso lokalizatua.

1. "Mundu osoko emakumeek pairatutako indarkeria mota ohikoena bikotearen barruko indarkeria da" (NBE, 2006, 46. or.).
2. 16 eta 44 urte arteko emakumeen artean hamar arrisku aldagai aztertu ondoren, Munduko Bankuaren ikerketa batek (Heise, 1994) ondoriozatu zuen genero indarkeriak desgaitasun eta heriotza gehiago eragiten zituela minbiiziak, zirkulazio istripuek, maliariak edota gerrak baino.
3. Europan, gutxi gorabehera emakumeen % 20-50ek bere etxe barruan indarkeria matxista pairatu du; emakume batek aukera gehiago ditu bere bikotekideak kolpatu, bortxatu edo hil dezan beste inork egin dezan baino (Keltosova, 2002).
4. Mundu osoan egindako 48 inkestaren emaitzetatik ondoriozatu denez, gutxi gorabehera emakumeen % 10-69k beren bikotekidearen eraso fisikoren bat jasan du bizitzako uneren batean; indarkeria horrekin batera eraso psikologikoak ere gertatu ohi dira, baita sexu abusuak ere, kasuen heren batean (Heise eta García-Moreno, 2003).
5. OMEren ikerketa batek (García-Moreno, 2005) erakutsi zuen bizitzan zehar bere bikotekidearen aldetik indarkeria fisikoa, sexuala edo biak pairatu duten emakumeen kopurua % 13-61 artekoa dela.
6. Spainian egindako makroinuesta batek (Emakumearen Institutua, 2006) erakutsi zuen emakumeen %7, 2-9k eraso sexistak teknikoa (indarkeriaren adierazle diren hainbat jarreraren biktima zirela baiezatzen zuten emakumeek) pairatzen zutela bikotekidearen edo bikotekide ohiazen aldetik, eta, % 1,9-2,1ek, aitoruntako indarkeria (azken urtean indarkeria pairatu izana aitorrentzen zuten emakumeek). Osasun eremuko azterketek adierazten dute bizitzan zehar % 20-48,6 artekoa dela emakumeen aurkako indarkeria matxista (Ruiz Pérez et al, 2010).

● Indarkeria psikologikoa ez da fisikoa bezain larria.

1. "Bikotekidearen baitan gertatzen den indarkeria aztertu izan duten ikerketetan, arreta urriagoa jaso izan dute indarkeria psikologiko edo emocionalek" (NBE, 2006, 44. or.), baina erasotuaren osasun fisiko nahiz mentalean indarkeria fisikoak adinako mina eragiten dute indarkeria horiek (Echeburúa eta Corral, 1998), eta, gainera, beste indarkeria mota batzuen aitzindari izan liteke (Vázquez et al., 2010).

● Emakumezkoak gizonezkoak bezain beste dira erasotzaile. Horregatik, eraso batek zein besteak larritasun maila bera dute.

1. Gizonek maizago jasaten dute indarkeria beste gizonezko ezezagun batzuen eskutik; emakumeek pairatzen duten indarkeria, aldiz, ezagutzen dituzten gizonen eskutik dator (García-Moreno, 2000).
2. Indarkeriari eta osasunari buruzko mundu mailako txostenak (Heise eta García-Moreno, 2003) adierazten du nahiz eta emakumeek bikotekide gizonezkoei eraso egin diezaieketen eta sexu bereko bikoteetan ere gertatzen diren erasoak, bikote barneko indarkeria emakumeek pairatzen eta gizonezkoek eragiten dutela nagusiki.
3. Txosten horrek berak bi indarkeria mota bereizten ditu: larria eta ertaina. Erkidego mailako galdeketak baliagarriagoak izango dira bigarrena atzeman ahal izateko ("bikote barneko indarkeria komun" gisa ere ezaguna da), eta horrek lagunduko du azaltzen zergatik, askotan, horrelako galdeketek emakumeek eragindako indarkeriaren funtsezko zantzuak identifikatzenten, zerbitzuetan arreta eskatzen duten erasotuen gehiengo handi bat emakumezkoak izan arren.

Hau ondoriozatzen du: "Herrialde industrializatuetan emakumeek bikote-harreman barneko indarkeria komuna eragiten dutela baiezta bida ere, zantzu gutxi daude baiezatzeko indarkeria matxista pairatu duten emakumeen talde klinikoetan maiz atzematen den indarkeria larri eta pitinkako bera eragiten dietenik gizonezkoei.

Era berean, azterketak adierazten du bikote harremanean gertatzen den indarkeriak eragin ezberdina duela gizonengan eta emakumeengan, eta eragiteko arrazoia ere ezberdinak direla." (102. or.). Beraz, gizonezkoek emakumeen kontra eragiten duten indarkeriak ondorio nabarmen lazgarriagoak ditu eta, gainera, "justifikatutaz" hartzen da kulturan, tradizioan edota gizonak emaztearekiko ezar lezakeen diziplina edo kontrol eskubidearen izenean.

4. Indarkeria ez da emakumeen aldetik modu sistematikoan gertatzen. Kasu bakan batzuk egotea ez da nahikoa argudio emakumeengako indarkeria sistematikoarekin parekatzen. Egungo sistema ideologiko eta kulturalak gizonari emakumea azpiratzeko aukera ematen dio, eta ez alderantziz. Indarkeria horren erroak, batez ere, patriarkatua, androzentrismoa, jabetza pribatua eta maitasun erromantikoaren ideia tradizionala dira.

- **Indarkeriari buruzko legeek gizonezkoen kontra egiten dute.**

1. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako lege orokorra ezartzeak emakumeen aurkako mito berriak sortu ditu. Besteak beste, salaketa faltsuak, zaintza partekatua eta gurasoen alienazio sindromea.

2. Baieztapen horrek ez du inongo oinarririk. Normalean, zenbait salaketa faltsutzat hartzan dira indarkeria matxista kasu bat artxibatu eta gero, testigantzen ondorioa dela eta. Estatistiken arabera, 2009tik aurrera jarritako salaketa faltsuak % 0,078 dira, eta, gainerako salaketak, 1.222.172.

- **Salaketarik ipini ez badu, erasoa hain larria ez delako izango da.**

1. Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak zailtasunak ditu bere burua egoera horren biktima gisa identifikatzeko.

Emakume gehienek ez dute salaketa judzialik jartzen, haietako askok bizitzan aurre egiteko ezintasunak dituztelako: anitzasun funtzionala izatea, hizkuntza ez ezagutzea, paperik ez iza-tea, prekariatatea eta beldurra.

Beldurra faktore garrantzitsua da salaketa jarri edo ez erabakitzeko orduan. Salaketa eragin ditzakeen albo-kalteak, estigma sozialak, lotsak edo bestelako arrazoia erabakigarriak dira.

Salaketa judiziala prozesu bortitza da emakumeentzat, presio emozional eta psikologiko handia pairatzen dutelako. Oraindik orain, salaketa jarri duen emakumea susmagarritzat hartzen da eta haren hitza ezbaian jartzen da.

Horrez gain, agerikoa da salaketa jartzeko gizarteak egiten duen presioa, baina, era berean, procedura judiziala oso mugatua da emakumeen aurkako indarkeria salatzeko tresna gisa.

Salaketa judizialez gain, salaketa soziala eta publikoa ere hor daude.

Arrazoi horiek guztiak tarteko, maiz, emakume askok salaketa prozesua eteten dute. Adibideak: "Emakume askok ondasunak eta seme-alaben zaintza mantentzeko ipintzen dituzte salaketak".

- **Emakume migratzaille eta arrazializatuek bizileku eskubidea bermatzeko edota dirua lortzeko ipintzen dituzte salaketa.**

1. Indarkeria matxista jasandako emakume atzerritarren artean % 1ek lortzen du egoera administratiboa legeztatzea, hots, bizileku baimena eskuratzea.

Legez kontra dauden emakumeak salaketa judiziala jartzeari zenbait arrisku ditu. Izan ere, prozesu judizialean erasotzailea absolbitzen bada, eta salaketa jarri duena legez kanpoko egoeran badago, bizileku baimena eta lanerako baimena ukatuko zaizkio. Horrez gain, legez kanpoko egoeran egoteagatik, aparteko zehapen procedura administratiboa aplika dakiore, eta, ondorioz, kanporatua izan daiteke.

- **Lesbiana eta homosexualen artean ere maila berean gertatzen da indarkeria.**

1. Heterosexualitatea derrigorrezko arau bihurtu da, eta horrek bidea irekitzen dio indarkeria matxistari.

ZER DIRA ZURRUMURRUAK?



Zurrumurrua mito bat ezartzeko tresna erabilgarri eta eraginkorrenetariko bat da. Mitoak bezalaxe, ezin dira egiaztatu, eta, ahoz aho transmititzen diren arren, komunikabideek eta sare sozialek azkar hedatzten dituzte. Pertsona ororen jarrerak baldintzatzen dituzte, eta, oso polemikoak edota inpaktu handikoak direnez, ziztu bizian zabaldu ohi dira. Zuzeneko eragina dute pertsonen emozioekin, eta horregatik, askotan, datu errealek baino eragin nabarmenagoa dute.

Zurrumurru matxisten bitartez, oharkabeen bada ere, sistema patriarkala erreproduzitzen, emakumeon diskriminazioa naturalizatzen, eta, ondorioz, indarkeria matxista justifikatzen dugu. Azter dezagun zergatik.

Zurrumurruen oinarrian estereotipoak daude. Hala ere, estereotipoak aurreuste bilakatzen direnean egoera aldatu egiten da, ustezko egia bilakatzen direlako, eta, ondorioz, diskriminazioa naturalizatzen eta onartzen delako.




ESTEREOIPOA SINETSI

Kategoriak, etiketak, irudi sozialak. Sinetzen, pentsatzen dudana.



AURREIRITZIA SENTITU

Berneratzen ditudan estereotipoen araberako aurreiritzia. Sentitzen dudana (sentimenduak/jarrerek).



DISKRIMINAZIOA EKIN

Aurreiritziek nire ekintzetan eragina badute, egiten dudana diskriminaztalea izango da.

Pertsona bat kolektibo jakin baten parte delako ezberdin eta modu negatiboan tratzen dut.

zer dira estereotipoak ?

Gure gizartean nagusi den genero sistemak gizonak eta emakumeak nolakoak izan behar duten zedarritzen du. Hobetsitako jokaera horiek lotura dute, besteak beste, lan, jokamolde, funtzio, ezaugari psikologiko, gorputz mugimendu, espazioaren erabilera zein denboraren kudeaketarekin. Generoa arauemailea da, eta dimentsio sinbolikoa ere badu. Genero estereotipoak genero femeninoari nahiz maskulinoari esleitzten zaizkion ezaugari zehatzak dira. Sinesmen horiek jokamolde ereduak ezartzen dituzte, eta, giza izaeraren parte balira bezala, gure pentsamoldean oso barneratuak, kokatuak eta naturalizatuak ditugun eskemak sortzen dituzte. Pertsonok etengabe epaitzen dugu, eta epai horiek zuzenko eragina dute hartzen ditugun erabakietan zein iritzietan.

Estereotipoek eragin handia dute besteekiko ditugun iritzi eta usteetan. Esperientzia jakin batzuk, talde sozialen ezaugarrri orokor gisa ulertzen ditugu, eta sinesten dugu talde guztiak ezaugarrri komun berbera duela. Egiatik zerbait izan dezaketen arren, erreallitatea neurriz kanpo definitzen dute.

Adibideak:

- Emakumeek eta gizonek desberdin pentsatzen dute, garun eskema desberdina dutelako. Mendebaldeko emakume zurien aldarrikapenak munduko gainerako emakumeek dituztenen berdinak direla uste izatea.

Oro har, besteei buruz ari garenean abstrakziorako edo orokortze-ko joera dugu.

- Mutilak neskak baino hobea dira kirolean, ezaugarririk hobeak dituztelako. Sexu harremanetan, emakumeak eezeko garbirik adierazten ez badu, proposatuak baimentzen ari da.

Estereotipoen ezaugarrri nagusia horiek aldatzeko zailtasuna da; izugarrizko erresistentzia dute, belaunaldiz belaunaldi irauten baitute. Bainak eraikiak diren neurrian, deseraiki ditzakegu.

zer dira urre- iritziak?

Aurreiritzi bat pertsona, objektu edo ideia baten inguruan aldez aurretik eratzen den kontzeptu edo epaia da. Abian jarritako estereotipoa dela esan dezakegu. Estereotipoa sinesmena da, eta, aurreiritzia, aldiz, sinesmen horrekiko sortzen zaizkigun emozio eta sentimenduak dira. Hau da, pertsona edota talde sozial zehatzeko pentsatzen duguna, sinesten duguna, emozio eta sentipen zehatz bilakatzen da.

Aurreritzia, beraz, estereotipoan oinarritutako ebaluazio bat da.



zer da diskrimina- zioa?

Diskriminazioa talde sozialekiko edota pertsonekiko jarrera bereizgarria da. Jatorrizko adieran ezberdintzea adieraren sinonimoa izan arren, gehienetan, zentzu negatiboan erabiltzen da. Diskriminazioa ematen da bereizketa bidegabeki edo era arbitrarioan egiten denean. Askotan, zenbait diskriminazio eta injustizia ezabatzeko egiten diren ekintza bereiziak diskriminaziotzat har daitezke, nahiz eta horren kontrako ekinbideak izan. Horiek ekintza positiboak direnez diskriminazio positibotzat izendatu izan dira, diskriminazioari izaera neutrala emateko. Aitzitik, guk argi eta garbi dugu diskriminazioa kasu guztietai negatiboa dela eta talde sozialak baztertzeko erabiltzen dela.

Sexuaren araberako zuzeneko diskriminazioa, norbaiti esleitu zaion sexuagatik negatiboki tratatzea da. Zeharkako diskriminazioa, aldiz, neutroa dirudien egoera baten aurrean sexu bateko kideak besteezik desabantaila egoeran kokatzea litzateke. Baztertutako talde sozial baten (izan emakumeak, askotariko identitate sexualak, arrazializatuak, txiroak, zaharrak...) kontrako ekintza da, talde hegemoniarekiko desabantaila eta bazterketa egoera sortzen du, eta azken talde horri pribilegioak ematen dizkio.

ZURRUMURRUEN MURRUAK ERAISTEA

Zurrumurrek, harrizko harresiek bezala, errealitatea ezkutatzen digute. Ez hori bakarrik; izan ere, zurrumurru horiek mezu eta estereotipoz josita daude, eta nabarmen eragiten dute gure jarreran, pentsamoldean eta bizi ikuskeran. Hain dira sotilak, ezen oharkabean barneratzen eta naturalizatzen baititugu. Hala, argudio sendorik gabe, egitate faltsuak sinesten eta gorputzen ditugu. Ildo beretik, indarkeria matxista babestu eta patriarkatuak ezarritako arau eta usteak mantentzen ditugu.

*Murrua eraisteko
lehen urratsa zurrumurru matxistak
identifikatzea da.*

Hurrengo pausoa kontzientzia hartzea da, eta horren inguruko hausnarketa egitea. Azken erronka, zurrumurru horiei aurre egiteko, banakako nahiz taldeko estrategiak pentsatzea da. Horretarako, erabilgarriak gerta daitezke lekuan lekuko ekintza sortzaileak.

Zurrumurru matxistei aurre egitea guztiion ardura da. Lan zaila, nekeza eta luzea izango da, baina ez da ezinezkoa. Beraz, has gaitzen, harriz harri, zurrumurruei izena jartzen eta horiek eraisten. Begirada kritiko eta feminista da horretarako gure arma.

Eta zuk zer egingo duzu zurrumurru baten aurrean? Hemen ideia batzuk...

Izan zure ideien jabe, baina ez sinetsi esaten den guztia. Pentsamen du kritikoa sustatu.

Zurrumurru bat entzuten baduzu, ez ezazu gehiago zabaldu.

Errealitatea zein den ez badakizu, jo ezazu iturri fidagarri eta egiaztatuetara.

Orokortasunak entzuten dituzunean, zalantzan jar itzazu.

Zure esperientziak ez du jendartea ezaugarritzen. Identifika itzazu jendar-tearen oinarrian dauden diskriminazioak.

Zurrumurru bat atzematen baduzu, ikusaraz ezazu, eta neutralizaten saiatu. Erantzuteko eskubidea ere baduzu.

Ez da erraza zurrumurru matxistei laguntzarik gabe aurre egitea. Egin diezaiegun aurre elkarrekin zurrumurrei!

Zurrumurru matxistarik gabeko plaza, herri, auzo, lagunarte eta bizitzak nahi ditugu-lako, interpela dezagun herria!





24



ZURRUMURRUAK ASTINTZEN: hausnarketarako ariketak

Orain, aurrez landutakotik abiatuta, ariketa batzuk proposatuko ditugu. Lagunartean bildu, eta ea lortzen dugun denon artean zurrumurruak isiltzea.

Zer dira zurrumurruak?

Helburua: zurrumurruak
zer diren ulertzea.

Azalpena: Talde txikitak edo banaka, zurrumurru hitza entzutean burura datorkigun lehen gauza idatziko edo margotuko dugu (aukeran). Behin hitzen zerrenda osatuta, haien baliatuz, zurrumurruen definizio bateratu bat egin beharko dugu guztion artean.



Taldean elkartu, eta aztertu gure herrian eta inguruan zabal-tzen diren zurrumurru matxistak. Nola egiten diegu aurre? Gai al gara gure inguruan bizi-bizi dauden zurrumurruak identifikatzeko? Ezagunak egiten al zaizkigu ondorengo esamolde hauek?

ERASOEN INGURUKO ZURRUMURRUAK

Leku ilunetan bakarrik ibiliz gero badakigu zer gertatzen den.

Euskal Herrian ez da halakorik gertatzen.

Etxeko kon-tuaak etxe-an konpon-tzen dira. Famili-ar-tean konpon-duko dugu.

Arazo per-tsonala da; ez du dimensio

sozialik.

Emakume batek ezetz esaten duenean, baietz esan nahi du.

Nori joko diozu larrua?

Neskekin tematzea be-harrezkoa da.

Mozkortu-ta dauden emakumeak errazago li-murtzen dira.

ERASOA JASAN DUENAREN INGURUKOAK

Mitoez eta zurrumuruez jabetzea

Helburua: inguruan ditugun mitoen eta zurrumurruen arteko loturak aztertzea eta horiei aurre egiteko argudioak lantzea.

Azalpena: ikusi dugu mitoek eta zurrumuruek lotura dutela; beraz, mitoa ezaria dagoen lekuau, mito hori indartuko edo egiaztatuko duen zurrumurrua egongo da.



Probokatzen ari bada, zer nahi du?

Zerbaitegatik egiten zuen dantza horrela.

Gauean bakarrik ibiltzea ere!

Orain esaten du behartu egin zuela, baina ez zuen eztik esan.

Lehenik berotu eta gero ezetz esan; zer espero du, bada?

Itsusia, zikina...zer uste zenuen nahi zuela?

Ez die importa jartzear; erasotzailea polita ez izatea da axola zaiena.

Ongi tratatzen ditugu, eta, gainera, hori.

“Aprobetxategi” hutsak zarete.

Serioegi hartzen ari da.

Gaizki interpretatu du.

Oso itxia zara; antzinaroan bizi zara.

ERASOTZAILEAREN INGURUKOAK

Badakigu nolakoa den; izatez pertsona ona da.

Barka iezaziozu; edanda / drogatua dago, eta ez daki zer egiten duen.

Jakina da: gizonezkoek euren beharrak dituzte.

Noski! Berotu egin zuen, eta ezin izan zion kontrolari eutsi.

Erakuts ezazu

zein zaren.

Arrakasta izan zuen.

Brometan ari zen.

Ez ezazu neska gajoa gogaitu.

Gizonak beti nahi du eta...

Bere neska desio duelako nahi du sexua etengabe.

Beste neska batekin adarrak jartzea nahi ez badu...



Termometroaren jolasak:

Helburua: indarkeriaren inguruko mitoak eta zurrumurruak lantzea.

Azalpena: gela huts batean, lerro zuzen bat irudikatuko dugu.
Lerro zuzen horren mutur batek adostasuna adieraziko du; beste muturrak, ostera, desadostasuna.
Dinamizatzaileak zenbait esaldi esango ditu, eta partaideek lerro horretan kokatu beharko dute. Esaldiarekin ados dauden ala ez dauden azalduko dute horrela, eta, ondoren, beren posizioa argudiatu beharko dute.

Gaur egun, berdintasunean bizi gara.

Orgasmorik ezean, sexu-harrremanak ez dira asegarriak.

Salaketarik ezean, erasoak ez da oso larria.

Lesbianek ile laburra dute, utziak dira eta aizkolari alankadorak janzen dituzte.

Bortxaketa gehienak era bortitzean egiten dira.

Maitasuna guztien gainetik dago.

Etxean ondo jaten duena ez da jatetxera joango.

Eraso batzuk ez dira hain larriak; larrirasunaren arabera mai-lakatu behar genituzke.

Erasoa fisi-koada, edo pertsona batek edo batzuk emakume batizuzenean egiten diotena.

Batzarretan, emakume eta gizonen hitzek balio bera dute.

Erasoei aurre egiteko gomendioen arriskuak:

Helburua: eremu instituzional edo kolektiboetatik zabaltzen diren mezuek izan ditzaketen albo-kalteek eta arriskuak identifikatzea.

Azalpena: udako jaietako Ertzaintzak eta udalak erasoak ekiditeko eman dituzten aholkuak aztertzea proposatuko zaie parte-hartzaileei. Ondoren, galdera hauek egingo zaizkie: zer mito identifikatzen dituzu esaldi horietan? Eta zer zurrumurru eragin ditzikete halako aholkuek?

Ez onartu edozein hitzordu, ez behintzat ezezagunekin!

Norbaitekin lehenengo aldiz hitzordua jartzekotan, egin leku ezagun batean eta jakin dezatela zure lagunek.

Zaindu zeure gauzak, edariak, zaindu zu zeu eta inguruako lagunak.

Ahal izanez gero, ez ibili gauez aldendutako eta argiztatu gabeko lekuetan.

Norbait errespetu gabe badtorkizu eta jazartzen bazaizu jakinarazi zure lagunei.

Udaltzaingoko eta Ertzaintzako patrullak zuri laguntzeko prest daude beti.

Egunerokotasunean identifikatzen ditugun zurrumurruen zerrenda bateratua egin.

Helburua: egunerokotasunean identifikatzen ditugun zurrumurruak taldean partekatzea eta, ondoren, haien multzokatzea.

Azalpena: dinamizatzai-leak taula bat banatuko die parte-hartzaleei, eta, taula horretan, mitoak sailkatuta egongo dira. Parte-hartzaleek egunerokotasunean pairatzen dituzten mitoak taldean aipatuko dituzte, eta, ondoren, denen artean sailkatzu beharko dituzte, taulan ezarritako kategorietan.

Testuinguru hauetako erabili-ko ditugu pista moduan:

Sexualitatearen / harrmanen testuinguruan

Emakumeekiko tratuan

Gizonen artean

Erasoarekiko



Ikusi ondorengo bideo hauetak:

Helburua: inguruan ditugun zurrumurruetako erantzuteko argudioak biltzea.

Emaginen youtube-ko kanalean, zurrumurruak atala duzu. Bertan dauden bideoak ikusi, eta partekatu zuen iritziak taldean.

Bosch, E., eta Ferrer, V.A. (2002). "La voz de las invisibles. Las víctimas de un mal amor que mata". Editorial Cátedra. Colección Feminismos. Madrid.

Keltosova, O. (2002). "Domestic violence". Doc. 9525, Report Committee on Equal Opportunities for Women and Men. Europar Batasuna.

Heise, L.L., eta García-Moreno, C. (2003). "La violencia en la pareja". In E.G. Krug, L.L. Dahlberg, K.A. Mercy, A.B. Zwi eta R. Lozano (ed.), Informe Mundial sobre Violencia y Salud (97-131). Washington DC: Organización Panamericana de la Salud (Jat. OMS, 2002).

Carlshamre, M. (2005). "Informe sobre la situación actual en la lucha contra la violencia ejercida contra las mujeres y futuras acciones (2004/2220(INI))". Europako Parlamentua, A6-0404/2005.

Sanmartín, J. (2006). "II Informe Internacional Violencia contra la Mujer en las Relaciones de Pareja. Estadísticas y legislación". Indarkeria aztertzeko Reina Sofía Zentroa. Valentzia.

Sanmartín, J., Iborra, I., García, Y., eta Martínez, P. (2010). "III Informe Internacional Violencia contra las Mujeres en las Relaciones de Pareja. Estadísticas y legislación." Indarkeria aztertzeko Reina Sofía Zentroa. Valentzia.

Euskal Herriko Bilgune Feminista (2016) "Beldurrrak gurekin jai". Euskal Herria.

Bosch-Fiol, E., Ferrer-Pérez, V.A. "Nuevo mapa de los mitos sobre la violencia de género en el siglo XXI" Psicothema 2012. 24. alea, 4. zk, 548-554. or., Balearre-

tako Unibertsitatea.

Peters, J. (2008). "Measuring myths about domestic violence: Development and initial validation of the domestic violence myth acceptance scale". Journal of Aggression, Maltreatment & Trauma, 16(1), 1-21.

Lorente, M. (2009). "Los nuevos hombres nuevos." Ediciones Destino, Bartzelona.

Méndez, R. (2010). "El SAP en su repercusión social" . In A. Escudero, D. González, R. Méndez, C. Naredo, E. Pleguezuelos eta S. Vaccaro, Informe del Grupo de Trabajo de Investigación sobre el Supuesto Síndrome de Alienación Parental, 76-94. Berdintasuneko Ministerioa. Madrid.

Stop Rumore. 1. prestakuntza-pilula: "Definiendo los componentes" . - Stop Rumores. 2018ko argitalpena. Eskuliburua.

<http://zurrumurrurrikez.eus/#rumores>

Martinez Portugal, T. (2017). "Transformando imaginarios sobre violencia sexista en el País Vasco. Narrativas de mujeres activistas". Emakunde, Gasteiz.

Ruiz Balzola, A. (2018) "Egiturazko arazo batez ari gara, ez pertsona jakin baten arazoaz" . Eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/papere->

TESTUAK:

Emagin
(+34) 943 59 09 02
www.emagin.eus

ILUSTRAZIOAK ETA DISEINUA:

Paula Estevez
www.paulaestevez.com

